



## Alokairuaren alde, Bizigune programarekin

HERNANI  
ETXEBIZITZA MAHAIA

10



## Santboiana aurkari, berriro ere Landaren

HERNANI  
ERRUGBIA

15



## Kabaretera egin du salto Andoni Mutiloak, bizitzan sormenari tokia eginez

HERNANI  
ANTZERKIA

2-3



## Koloreak dantzan

Aranon pasa den asteburuan ospatu zituzten, baina, gainontzean, Urumea bailaran ostiral meharrarekin egin zuen eztanda Inauterietako festak. Ereñotzu, Hernani eta Astigarragako ikasleak atzo hasi ziren gozatzeko. Gaur Goizueta ere batuko zaie, nahiz eta egun potoloena astean zeharrekoak izango dituzten.

4-9

## Izen-ematea irekita, martxoko ikastaroetan parte hartzeko

HERNANI  
KZ GUNEA

11

### AGENDA

**GAUR** 11:30 : Palan neskek, asteburua hasteko  
HERNANI

**GAUR** 19:00 : Aranoko mezaren grabazioa  
ARANO



**ETZI** 19:30 : Literatura saioa, Jorge Carrerok gidatuta  
ASTIGARRAGA

## DBHren aldeko giza-katean parte hartzeko izena eman ahal izango da astearteatik aurrera

Martxoaren 29rako giza-katea antolatzen ari da Astigarraga DBH mugimendua, eta asteartean irekiko du parte hartu ahal izateko izen-emate epea. Postuak jarriko dira eskolako sarreran, Joseba Barandiaran plazan edota DIAko parkean, astearte eta ostiralean eta martxoaren 4, 6 eta 12an. Prentsaurrekorako dei ere egin dute.

ASTIGARRAGA  
DBH ORAIN

12

## Liburutegi ibilitaria doan, ostiraletik aurrera

Hileko azken ostiraletan Arano eta Goizuetatik pasako da Har-kaitz Delgado, Leitzako liburu-zaina. Horri esker, Liburutegi Sarea eskura izanen dute.

ARANO-GOIZUETA  
LITERATURA

14

AZKEN PLAZAK

## Zetaren bidea

(Uzbekistan)

**NOAOA**  
BIDAIK

Tel: 943 37 36 13 info@noaa.eus Hipodromo etorbidea, 10. Lasarte-Oria

## Eslovenia & Istria

**Bidaiak taldean**



# «'Esnatu naiz'ekin gozaten ari naiz eta Hernanin emanaldia eskaintzea asko gustatuko litzaidake»

Andoni Mutiloa hernaniarra eszenatokira igo da bakarrik lehenengo aldiz 'Esnatu naiz' kabaretarekin. Oraingoz lau emanaldi eman ditu eta beste bi emanaldi ere hitzartu ditu.

## HERNANI ANTZERKIA

Andoni Mutiloa (1976) hernaniarra oholza gainera igo berri da *Esnatu naiz* kabaretarekin. Lau emanaldi eman ditu oraingoz eta asko gozaten ari dela azpimarratu du «nire lehendabiziko sorkuntzan». Gainera hernaniarra izanik herrian bertan emanaldia eskaintzea asko gustatuko litzaioke.

Mutiloak ideiak beti izan ditu buruan, baina inoiz ez zen horrelako sorkuntza lan batean aritu. Bere egunerokotasuneko kazetari lanean eszedentzia hartu zuen eta horrek bide eman zion ideia horiek garatzeko eta hortik sortu da bere lehenengo obra. Bertan denetarik egiten du eta bakarka. «Abestu, dantzatu, antzeztu... eta dena bakarrik 35-40 minutu irauten duen kabaretean. Azkenean *Esnatu naiz* hori da, kabarete bat».

## Pello Euskal Herri txikitik Londretera joan da artista izateko

Protagonista Pello da. Gipuzkoako herri txiki batean kokatzen duen gazte bat. Euskalduna eta baserritarra. «Pello konturatzen da bere egunerokotasunean ezin duela bera izan. Bere nortasuna eta egunerokotasuna ez datoz bat. Heldutasunean, hortaz konturatzen denean, erabakitzen du Londretera joatea. Bertan lortuko du artista izatea eta bere ametsa gauzatzea. Obra hasten denean Pello Londresen bizi da eta Elur da bere izen artistikoa edo alter egoa. The Pink Flamingo klubean egiten du lan bertan bere showa du eta jende asko gerturatzen da bera ikustera. Ohiko showa egiten ari dela, bat-batean ez da gai aurrera egi-


teko, zerbait gertatzen zaio; gatazka bat sortu zaio eta negarrez hasiko da. Hor abiatzen da benetan nor den kontatzen, nondik datorren eta zer nolako bizipenak izan dituen ordura arte azken hamar urteetan. Obran hori erakusten det».

Obran zehar ikusi daitezke zer bizipen eta aldaketa izan dituen Pelloren bizitzak maila pertsonalean, batez ere, eta profesionalean.

## «Gatazka batetik sortzen den kritika eta aldarrikapena egiten ditu Pellok»

Gatazka hori nondik datorren Andoni Mutiloa berak azaltzen du, nahiz eta ez duen gehiegi sakondu nahi. «Obraren munitako bat delako» dio. «Bukarran agertzen da. Lan honetan kritika bat dago. Pellok atzerri-ra joan behar du ezin duelako bera izan bere sorlekuan, bere etxean, bere herrian... ezin du. Oso pozik eta harro dago egin duen ibilbideagatik, baina, aldi berean, minduta dago eta erabakitzen du Londresen bizitzea; ez agian horrela nahi duelako, gustatuko litzaioke Euskal Herrian bizitzea, baina ez da posible. Ez du ikusten Euskal Herria prest bera bezalako pertsona bat bere osotasunean onartzeko. Hor sortzen da gatazka, eta bere kritika dago».

Pello transformista da, bere showan horrela da eta zentzu horretan azken urteetan eraldaketa haundia izango du arlo pertsonalean. «Trans kolektiboaren barruan sartuko litzateke, nahiz eta berak ez dizkion etiketak jarri nahi bere buruari. Azkenean aldarrikapen bat ere badago. Trans bat Euskal Herrian ezin da lasaitasunez bizi oraindik.



Andoni Mutiloa Hernaniko Ave María parkean.

Bizi daiteke? Bai, lasaitasunez eta herri batean? Ez». Mezu hori adieraztea da Mutiloarentzat garrantzitsua sorkuntza honetan. «Egia da azken urteetan asko aurreratu dela eta pausoak eman direla, baina nire iritzirako, Andoni moduan, oraindik ez dago gizartea prestatua. Bizi ahal izango da, baina eroso ez.

Asko dago egiteko benetako normaltasun batera iristeko. Gure mentalitatea edo pentsamoldea asko aldatu behar da horretara iristeko».

## «Gure nortasuna eta gure egunerokotasuna bat al datoz?»

Andoni Mutiloak sinesten du

istorioan, oso ongi pasa du hori sortzen, baina berarentzat inportanteena da hausnartzea: «gure nortasuna eta gure egunerokoa bat al datoz? Galdera horretatik abiatuta sortu zen prozesu osoa, ze nik ere galdera hori egin nion neure buruari. Nire kasuan ikusi nuen hutsune haundiak zeudela. Sormenari ez

## Kronika

Larramendi 11, Hernani  
☎ 943 33 08 99  
688 660 714

**Lege gordailua:**  
SS-1469/2018  
**ISSN:** 2659-5036

**Eposta:**  
kronika@kronika.eus,  
astigarraga@kronika.eus,  
urumea@kronika.eus eta  
publi@kronika.eus.  
**www.kronika.eus**

**Lan-taldea:**  
A. Arbelaitz, O. Egaña,  
I. Goñi, L. Goñi, B. Los  
Arcos, A. Moreno, J. Osa,  
M. Ramirez de Alda eta  
J. Zubitur.

### Argitaratzailea:



Larramendi 11, Hernani  
☎ 943 33 27 99  
**Eposta:** dobera@dobera.eus  
**www.dobera.eus**

KRONIKAK ez du bere gain hartzen egunkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

### Laguntzaileak:



Hernaniko Udala



Astigarragako Udala



Auzo Udala



GOIZETAKO UDALA



ARANOKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura eta Hizkuntza  
Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak)  
diruz lagundua.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

**DOBERA BAZKIDEAK  
KRONIKALARIAK**

**TOKIKOM**





**«Amets bat gauzatzea izan da niretzako, gozatu egin dut eta hori niretzako izugarritzako oparia da. Sormenari nire bizitzan zeukan garrantzia eman diot»**

diodala eman nire bizitzan zeukan garrantzia».

Obra honen bitartez, eta azken urteetako bizipenen bitartez, Andoni bera hori orekatzen ari da eta izugarritzako oparia izan dela dio.

Donostian antolatzen den Poltsiko antzerki zikloaren deialdira aurkeztu zuen obra Mutiloak, eta bertan aukeraturako bi antzezlanen artean zegoen *Esnatu naiz*. Ateak ireki zizkion obra estreinatuzko. «Lau emanaldi eskaini ditut Donostiako lau tabernatan. Urtarrilaren 29an izan zen estreinaldia *Botanika* tabernan. Gero Herre-rako *El Nidon*, Sagüeseko *Scanner*-ren eta Egiako *La Tabernan* eskainiko ditu emanaldiak».

**«Lortu dut pertsonaian sartzea eta gozatu egin dut. Kriston oparia izan da niretzako»**

Andoni eszenatokian aritutakoa da aurretik, taldean; euskal dantzetan urte asko egin eta gero, antzerkian ere taldean ibili da, eta bere kazetari lanean ere jendearen aurrean aurkezle lanetan ohitua dago, baina lan honek ez du zerikusirik. «Bat-batean ni bakarrik eszenatokian nago antzeztzen, kantatzen eta dantzatzen. Nire bizitza osoan egin ez dudana. Kamikaze izan naiz. Nahi dudana egin dut. Ez nekien nola moldatuko nintzen gainera pertsonaia honekin. Pello eta Elurren azalean sartzea erronka handia izan da maila artistikoan eta pertsonalean. Transformista bat, baserritarra... erregistro asko zituen eta ez zait erraza egin pertsonaian sartzea eta eroso egotea, baina lortu bakarrik ez, gozatu egin dut. Hori niretzako izugarritzako oparia izan da».

Kaberetea tabernetan aurkeztu izana oso baliogarria izan da bere ustez. «Jendearengatik oso hurbil zaude, hori gustatzen zait eta hori nahi dut. Lekua ez da erraza, eta erronka izan da. Denbora guztian oholtzan nago. Erritmo bizia du eta oso pozik nago».

Botanikan egin zuen estreinaldia arrakastatsua izan zen. Txiki geratu zen Botanika, tabernak betetzea errazagoa dela konstziente izanda. «100 pertsona baino gehiago sartu ziren, leporaino beteta, eta kanpoan



Andoni Mutiloari Egiako labandria batean egin zioten promoziorako argazkia.

geratu zen jendea. Poltsiko antzerkiak ohitura edo tradizio handia du eta gainera lagun eta ezagun asko joan zen ikustera. Flipatu egin nuen. Urduri nengoen hasieran, baina indar gehiago zuen aurkezteko nuen gogoak. Gai izan nintzen emanaldian gozatzeko. Aldi berean, oso sartuta nengoen nire lanean eta kanpoko perspektiba galdu egin nuen. Hurrengo egunean galdetzen nion neure buruari nola izan nintzen gai egiteko. Amets bat bezala izan da, amets bat gauzatzea».

**«Sinisten dut mezuan eta nahiko nuke jarraitu mezu hori zabaltzen»**

Proiektuan sinisten du %100ean Mutiloak eta zerbait ederra sortu duela pentsatzen du. «Mezuan sinisten dut eta nahiko nuke jarraitu mezu hori zabaltzen. Hurrengo urratsa emanaldi gehiago eskaintzea da».

Orain erabakiak hartzeko garaia da. Ikuskizuna sortua dago. Gauza batzuk aldatuko lituzke, osatu, luzatu... baina egia esan «gaur bertan aurkezteko moduan dago. Bi emanaldi gehiago lotuta ditut; bat Bilbon eta bestea Zestoan. Beste bi proposamen ere izan ditut. Obra Gipuzkoan eta herrian ikusten ditut eta antzerki ertainetan, nahiz eta hurrengo emanaldia Bilbon izan martxoan. Zestoan ekainean emango dut antzerki astean». Eta noski hernaniarra izanda herrian taularatzea gustatuko litzaioke. «Ilusioa handia egingo lirake. Nire herria da, asko gustatuko litzaidake». K

## «Amancay Gaztañagak eta Eneko Balerdik asko lagundu didate»

Andoni Mutiloak irratian eszedentzia hartu eta hain gustokoa duen sorkuntzari denbora eskaini dio Erreterian, Donostian eta Zestoan.

**HERNANI ANTZERKIA**

Andoni Mutiloa kazetaria eta irakaslea da. Irakaskuntzan aritu da eta Euskadi Gaztean eta Euskadi Irratian aritu izan da urte askotan. Orain ia bi urte eta erdi eszedentzia hartu zuen irratian eta buruan beti izan dituen sormeneko ideiak gauzatzeko aukera ikusi zuen. «Ez nintzen inoiz jartzen ideia horiek idazten edo gauzaten. *Esnatu naiz* obraren abiapuntua etenaldi horretan dago. Hasieran ideia bakarrik zen; euskaldun bat, baserritar bat nolabait Beyoncé edo artista izan nahi duena eta atzerrira joaten dena. Kanariar irletan nengoenean ekaitz denborale bat sartu eta orduan, etxean negoenean hasi nintzen forma ematen».

Duela urte eta erdi berriz heldu zion proiektuari. «Donostian berrekin nion aurretik idatzi nuen gidoi horri. 2019ko urtarrilaren lehen bukatu nuen idazteaz lehendabiziko bertsioa». Fikzioan oinarritutako historia da, baina Andonitik

asko du historiak eta hori paporean idazteak asko poztu zuen. Hori bai, horrekin zer egin zen hurrengo pausoa eta eszenara eraman nahi zuen. Horretarako laguntza behar beharrezkoa izan du Mutiloak ez baitzuen aurretik horrelako lanik egin. Euskal dantzetan ibili zen, antzerkian modu ez profesionalean aritu zen aurretik afizio moduan; bere ametsa abeslari eta aktore izatea izan baita. «Hau egin nahi dut esan nuen, baina ezagutza falta zitzaidan. Horrela, ate batzuk jo nituen eta laguntza eskatu nuen. Zestoara antzerki tailer batzutan hasi nintzen aurreko urtean Amancay Gaztañaga irakaslearekin».

Erreteriarako eszena jaialdian parte hartu zuen talde batekin eta hiru emanaldi egin zituen kalean. «Sorkuntzari denbora eskaitzen hasi nintzen, baita dantzari ere, nolabait zaletasunari bere lekua ematen. Gaztañagaren laguntza ezinbestekoa izan du hernaniarrak. Poltsiko antzerki jaialdian deialdiak aurkeztu

daitezke eta bi aukeratzen dituzte. «Amancayri esan nion deialdian parte hartuko nuela eta nahiz eta aukeratu ez izan, zerbait egin nahi nuela. Laguntza eskatu nion nik idatzitakoari forma emateko eta berak baietz esan zidan. Deialdian aukeratu egin ninduten eta hiru hilabete nituela hori egiteko esan zidaten».

Gaztañagaren laguntzarekin idatzia antzerkira moldatu dute. Nire idatzia gehiago nobela txiki bat zen. «Azken hiru hilabete horietan hortan aritu naiz, prestatzen. Akziora pasa behar zen lana eta gomendio batzuekin garatu dut lana, bere aholkularitzarekin».

Erreteriarako dantzagunean, Donostiako dantza eta musika eskolan eta Zestoako antzerki eskolan prestatu du obra. «Dantzan erosoago sentitzen naiz, baina ez naiz ko-reografoa eta hor laguntza izan dut Eneko Balerdirekin. Aiako dantzaria eta kasualitatez Pelloren pertsonaia idazterakoan Eneko burura etortzen zitzaidan».



# Eguzkitan dir-dir egingo dute koloreek asteburuan, Inauteriek jarritako giro paregabe

Azeri dantzarekin hasiko da gaurko Inauteri eguna, eta Incansables txarangarekin bukatu. Asteartera arte segiko du festak, sardina ehorzten den arte.

## HERNANI INAUTERIAK

Otsailean sartu bezala murgildu zen herria Inauteri giroan. Hileko aurreneko larunbaterekin hartu zituzten kaleak Hungariatik etorritako kaldereroek, Elur Txori elkartearen eskutik, eta pasa den asteburuan, berriaz, Urumea ikastolako Inude eta Artzainen konpartsak eta Hernaniko Musika Bandak jarri zituzten festarako dantza eta doinuak.

Inauteriei hasiera ofiziala, hala ere, atzo eman zitzaion Hernanin, ostiral mehe egunarekin. Arratsaldean bat egin zuten Plazan eskola guztietako haur eta gaztetxoek. Langile ikastolako ordezkariak izan dira aurten, pregoiaren arduradun. Izan ere, 50 urte betetzen ditu ikasturte honetan Langilek, eta urteurrena ospatzeko ekitalditan murgilduta dabilta.

## Txirritakoak Ereñotzun, Euskal Eskola Publikoaren alde

Den-denak, hala ere, ez ziren Hernaniko Plazan elkartu. Izan ere, Txirrita eskolako ikasleek Ereñotzun eman zioten hasiera festari. Aurrena, auzoan barrena kalejiran abiatu ziren, eta frontoira jo zuten gero. Bertan emanaldi alai egin ondoren, merienda eder askoarekin gozatzeko aukera izan zuten, Katiluzar Guraso Elkartearen eskutik.

Hitzordua beste zerbaiterako ere aprobetxatu zuten, gainera, Txirritakoek. Emanaldia eta meriendarekin bukatuta, argazkia atera zuten denek elkartuta, *Euskal Eskola Publikoaz harro* lelopean. Kanpaina hau Euskal Eskola Publikoaren aldeko plataformak jarri zuen martxan, «Hezkuntza Sailak sare publikoarekiko erakusten duen utzikeriaren aurrean, gobernuak onartu nahi duen Hezkuntza Lege berriaren asmoaren atarian, eta Administrazioak hezkuntza arloan aspaldi hartu duen pribatizaziorako joeraz jakitun, Euskal Eskola Publikoaren aldeko aldarrikapena egi-

teko». EAEko ikastetxe, eskola, haurreskola eta laguntza zentro (Berritzeguneak, Irale...) guztiak daude kanpainarekin bat egitera deituta.

## Musika eta kultur ekitaldiak, aukeran

Atzo festa giroan murgilduta, ez da etenik izango Hernanin, asteartera arte. Txaranga eta Musika Bandaren musika, erraldoi eta buruhaundiak, haurrentzako ikuskizuna edota pelota partiduak izan ziren aukeran, eta gaur eta datozen egunetan ere gehiago izango da.

Hasteko, azeri dantza izango da gaur, eta segidan, txaranga eta haurrentzako poni eta zezen txikiak. Erromeria eta erraldoi eta buruhaundiak ere izango dira, bazkalarretik.

Bazkaritarako hitzordua, berriaz, Kontrakantxa Gaztetxean jarri du Gazte Asanbladak, eta 20eko hamarkadan girotutakoa izango da.

Arratsaldetik gauera, haurrentzako antzerkia, txaranga, dantza festa, DJa eta Incansables txaranga izango dira.

Gaueko ordu txikietan txaranga batekin bukatu, eta biharko eguna ere txarangarekin hasiko da, goizeko 11:30etan. Gero, eguerdiko 12:00etan, konpartsak aterako dira Urbietako kaleak: Ttarla dantza taldeak eta Inmakulada ikastetxeak prestatu dituzte karrozak.

Arratsaldean berriro ere inauterietako txaranga aterako da, eta Musika Eskolako trikitilariak ere kale-bueltan ibiliko dira. Eguna bukatzeko, Demode Quartet laukoteak kontzetua emango du Tilosetan; euria egin ez gero, Biterin.

## Haurren eguna, astelehenean

Egunero izango dira adin guztietako herritarrentzako ekitaldiak, baina astelehenean izango da berriro, ostiralean bezala, gaztetxoentzako aukera gehiago.

Hasteko, Hernaniko Soinua elkarteko musikarien dianaren segidan, gaztetxoek gaztetxoentzako egindako azeri dantza izango da, eta gero, poni eta zezen txikiak, Latsunbeberri. Segidan, haur jolasak izango dira, baita ere, Atsegindegian. Eta arratsaldean, erraldoi eta buruhaundiak, eta 8 urtetik gorakoentzako puzgarriak.

## Atsegindegi, irekita

Obrak bukatuta, Atsegindegi erabilgarri dago, dagoeneko. **K**



Suziriak entzun orduko kantuari eta dantzatzeari ekin zioten atzo gaztetxoek.



Ttapa Ttapa egitasmoan biltzen diren hirugarren adinekoek ere bat egin dute Inauteriek.

## EGITARAUA

### HERNANIKO INAUTERIAK

GAUR, LARUNBATA

**10:00** Azeri dantza.

**11:30** Inauterietako txaranga.

**11:30** Haurrentzako poniak eta zezen txikiak Latsunbeberri auzoan.

**12:00** Erromeria Jeiki Hadi taldearekin. San Joan Konpartsak antolatuta.

**13:00** Erraldoi eta Buruhaundiak Kaxkoan barrena.

**14:00** Inauterietako bazkaria, Kontrakantxa Gaztetxean, eta ondoren, tribial herrikoa. Mozorroak 1920eko hamarkadan girotutakoak izateko proposamena egin da. Saria izango da.

**17:30** Haurrentzako antzerkia: Tomaxen abenturak taldearen *Azken balea* ikuskizuna, Milagrosan.

**18:30** Inauterietako txaranga.

**18:30** Dantza festa gaztetxoentzat Iñigo Etxenike DJarekin, Atsegindegian.

**22:30** Iñigo Etxenike DJaren emanaldia, Atsegindegian.

**00:00** Incansables txaranga.

BIHAR, IGANDEA

**11:30** Inauterietako txaranga.

**12:00** Konpartsen irteera Urbietako kaleak: Ttarla dantza taldea eta Inmakulada ikastetxea.

**17:30** Inauterietako txaranga.

**19:00** Hernani Musika Eskola Publikoko trikitilariak.

**19:30** Demode Quartet taldearen kontzertua, Tilosetan. Euria egin ez gero, Biteri kultur etxean egingo da.

ETZI, ASTELEHENA

**09:00** Diana. Hernaniko Soinua elkartearen eskutik.

**10:00** Azeri dantza, gaztetxoentzat.

**11:30** Haurrentzako poniak eta zezen txikiak Latsunbeberri auzoan.

**12:00** Kulki haur jolasak, Atsegindegian.

**16:00** Erraldoi eta Buruhaundiak Kaxkoan barrena, Hernaniko Soinua taldeko dultzaineroek girotuta.

**17:00** Gaztetxoentzako puzgarriak Atsegindegian. Parte hartzeko gutxienez 8 urte izan behar dira.

ETZIDAMU, ASTEARTEA

**18:30** Sardinen ehorzketa.

GAZTELEKUA

Inauterietako asteburu honetan itxita egongo da Gaztelekua, gaur, bihar eta etzi. Asteartean, hala ere, otsailaren 25ean, ekintza izarra izango da aukeran.





Ondo pasatzeko gonbidapena luzatu zuten pregoian. Langile ikastolako ordezkariak.

## Beste 50 urtez, giroa jartzeko prest

HERNANI INAUTERIEN HASIERA

Ostiral mehe egunarekin hasi ziren atzo Inauteriak Hernanin, pasa den asteburuan Urumea ikastolako Inude eta Artzainek eta Hernaniko Musika Bandak herria girotu bazuten ere, eta hilaren hasieran, Elur Txoriko kaldereroek. Festari hasiera ofiziala eskoletako gaztetxoek eman zioten atzo, eta algara, barre, kolore, ohiu, dantza eta barrez bete zuten Plaza eta Kaxkoa. Langile ikastolako ordezkariak izan dira aurten, pregoia botatzeko arduradunak, aurtengo ikasturtean 50 urte egiten baititu eskolak, eta ospakizunetan murgilduta daramate urte guztia. Ondo pasatzeko baimena emanda, txarangaren atzetik saltoka abiatu ziren Plazan bildutako gaztetxo guztiak, eta herri guztira zabaldu zuten, asteburu osoan zehar Hernaniko kaleak jantziko duen giro ona.



Inauterietan ere, udaltzainak beti lanean!

## Esku-burdin eta borrak ere, Inauteri doinuen erritmora

HERNANI INAUTERIEN HASIERA

Udaltzainek lanik ez dute falta izaten Hernanin, ezta festa giroa nagusi denean ere! Zoologikotik hainbat animaliak ihes egin zuen atzo, Inauterietako txaranga eta fanfarre doinuek erakarrita, eta dantza eta saltoka herrian barren libre ibiltzeko gogoz atera ziren kalera. Baina udaltzainek, lanerako prest beti, dantzara atera zituzten baita ere, borra eta esku burdinak! Bihotza xamurtuko ote zitzaien, Inauteri giro alaiak kutsatuta?



Gazteen bizkarrak berotzen ibili ziren atzo, Buruhandiak.



Little Big Jon abestiarekin hasi zuen emanaldia, Hernaniko Musika Bandak.

## Canarioren 'Orbagur 50', Inauteriei soinu banda jartzeko

HERNANI INAUTERIEN HASIERA Jorge Pachecoren zuzendaritzapean eman zuen atzo Musika Bandak Inauterietako kontzertua. Zarzuelatik euskal musika-

ra, jo zituzten Delgadoren *Little Big Jon*, Bretonen *La Dolores*, Gimenezen *La torre del oro...* Eta, Joakin Ortega *Canario*, duela 50 urte Incansables txaranga

sortu zuenetik bertan jarraitzen duen musikariren *Orbagur 50* pieza berezia. Agur esango dio txarangari, eta kantu hau sortu du, alabei ere keinu eginez.

## Erraldoi eta Buruhandiek atzo, aurreneko buelta

HERNANI INAUTERIEN HASIERA Aurreneko txaranga lanak bukatuta, Erraldoi eta Buruhandiek hartu zuten atzo dantzarako erreleboa. Plazatik atera

eta Kaxkoan barrena ibili ziren, batena baino gehiagoren bizkarrak berotzen. Gaur ere aterako dira berriro, egurdiko 13:00etan; baita astelehenean ere.





Gora Kasete! ikuskizunaz gozatu zuten atzo txikienek, Plaza Berrin.



Kronikako Andramari kazetari argazkilari, Elizatxo ikastolan.

## Kantuak opari, bizitza emanez musikari

**HERNANI** INAUTERIEN HASIERA Atzoko txupinazoak beste hainbat ekitaldiri ireki zien bidea. Txarangan saltoka, erraldoiekin liluratuta eta buruhandien-

gandik ihesi ibili ondoren, *Gora kasete!* haur ikuskizunarekin gozatzeko aukera izan zen Plaza Berrin. Izeko Margaritari oparitzeko kasete eder bat

grabatzea izan zuten helburu bertaratutakoek. Aurrena, noski, kasetea zer den ikasi behar izan zuten! Gero, kantu zerrenda osatu zuten elkarrekin.

## Kronika ere, Inauterietan

**HERNANI** INAUTERIEN HASIERA Mota guztietako mozorroak atera zituzten kalera atzo herri-tarrek, zein baino zein originagakoak. Elizatxo ikastolan,

adibidez, Kronikako Andramari kazetari argazkilari andrea azaldu zen, festa giroan murgilduta ere, lanean fin aritzeko, beti bezala!



Herriko ordezkari dotoreenak bete beharreko lanak egin zituzten.

## Ezin dotoreago, herriko ordezkariak

**HERNANI** INUDE ETA ARTZAINAK Dantzariekin batera atera ziren kalera igandean, herriko ordezkari gorenak ere. Inudeek aurkeztutako haur jaioberriak

eliza eta udaletxean erregistratzeko lanak bete zituzten ordezkari horiek. Nola ez, jantzi dotoreenekin jantzita bete zuten hitzordu garrantzitsu hori.



Globo edota piruleta saltzaileak ere gerturatu ziren hitzordura.

## Zita borobiltzeko, barkillo, piruleta eta globo

**HERNANI** INUDE ETA ARTZAINAK

Inude eta Artzainekin batera atera ziren kalera garai bateko beste hainbat pertsonaia ere. Ez zuten hutsik egin nahi izan herriko ordezkari dotoreenak, erizain eta medikuek, danbor joleek, agintari eta apaizek... Eta festa girora batu ziren globo saltzaileak, piruleteroak edota barkilleroak ere. Haur jaioberriak herriari aurkeztu zizkieten inudeek, eta horrelako egun pozgarria are gehiago gozatzeko egin zuten bat festa-ekin, alaitasun eta kapritxo saltzaileek.



Kale bueltari hasiera emateko Plazan barrena sartu ziren dantzariak Kaxkoan.

## Haur jaioberriak aurkeztuta, herriaren aurrean

**HERNANI** INUDE ETA ARTZAINAK

Igandean egin zieten bisita artzainek inudeei, eta haur jaioberriak herriaren aurrean aurkeztu zituzten azken hauek. Inauteriak iritsi aurreko aste-buruan, ohi bezala, kaxkoan barrena ibili zen Urumea ikastolako Inude eta Artzainen konpartsa, kaleak musikarekin eta dantzan alaitzeko. Eskolatik abiatuta, kaxkoan barrena ibili ziren dantzan, eta bukatu ere bertan egin zuten, haurrak herriari aurkeztu, udal ordezkarien aurrean erregistratu eta mediku eta erizainengana eramateko..





Pankartaz pankarta, Inauterietako kalejiraren ondoren Euskal Eskola Publikoaren aldeko aldarria egin zuten.

## «Harro» Txirrita, Euskal Eskola Publikoaz

**EREÑOTZU** **ESKOLA PUBLIKOIA**  
Inauteri giroan elkartu izana aprobetxatu zuen atzo Txirrita ikastetxeak, beste egiteko baterako ere: Euskal Eskola

Publikoaren aldeko plataformaren deialdiarekin bat egin, eta argazkia atera zuten ikasle, irakasle eta gurasoek elkartuta, *Euskal Eskola Publikoaz harro*

lelopean, hezkuntza sistema publikoari babesa erakusteko eta Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari sistema babesteko eskatzeko.



Estilo guztietako dantzariak batu ziren frontoian.

## Hippy eta rockero, Inauterietako musikak lagunduz gero, dantzan denak jo eta fuego!

**EREÑOTZU** **INAUTERIAK TXIRRITAN**

Festa giroan murgiltzeko, kalejiran abiatu ziren Txirrita ikastetxeko ikasleak, Ereñotzun barrena, eta frontoira jo zuten segidan, bertan emanaldia eskaintzeko. Inauteri giroan murgilduta, dantzan egin zuten bat bertaratutako guztiek. Hippy edo rockero, edozein estilotako festazaleek topatu zuten zerekin gozatu, denak elkartuta. Gorputza mugitzeko aitzakiarik ez zuten falta!

## Emanaldiaren ostean, katiluzar Guraso Elkartearen eskutik, bapo meriendatu zuten

**EREÑOTZU** **INAUTERIAK TXIRRITAN**

Ereñotzuko hippy eta rockeroek dantza eta festa egin ostean, emanaldia eskaini eta arratsaldeko 16:00ak aldera, katiluzar Guraso Elkartearen eskutik merienda bat antolatu zuten, eta aparteko jaki aukera izan zuten Ereñotzuko frontoian. Behin tripak ederki bete ostean, Euskal Eskola Publikoa harro argazkia atera zuten. Beraz, ederki pasa zuten atzoko egunean Txirrita ikastetxeko txiki eta ez hain txikiek.

# Motorrak berotzen hasiak, mozorroak

Gaztetxoek zahagi dantza eginen dute gaur, eta mozorroek, Inauterietako aurreneko afaria. Festak, ordea, etzi eginen du benetako eztanda.

**GOIZUETA** **INAUTERIAK**

Beste toki batzuetan baino berantiaragoak izanen dira Goizuetako Inauteriak. Gaur hasiko dira aurreneko ekitaldiak, baina bihar eta etzi eginen du eztanda benetan festak, eta gaur zortzi oraindik ere festarako aitzakia izanen dute, kontuak egiteko aitzakian.

**Zahagi dantzariak pregoilari**  
Aurreneko kolore printzak zahagi dantzariak jarriko dituzte, gaur bertan. Gaztetxoak izanen dira gaur, Goizuetak hain berezko duen dantza eginen dutenak, arratsaldeko 17:00etan hasita.

Segidan, trikitixa eta pandero doinuekin alaituko dute herria Leire eta Mariak, 18:00etan hasita. Eta motorrak berotzen hasteko zita jarri dute mozorroek ere: Inauterietako aurreneko afaria eginen dute, 21:30etan elkartuta.

**Astelehen eta asteartean nagusi festa, zirkoarekin hasita**

Bihar pilak kargatzeko aukera izanen dute goizuetarrek, Inau-

terietako egitarauak igandean izanen baitu segida. Eguneko gaia ere jarria daukate: zirkoa, alegia.

Mozorroek, hala ere, beren bideari ekinen diote goizeko 09:00etan, baserriz baserri ibiltzeko. Bitartean, goizeko 10:00etan plaza apaintzeko lanari ekinen diote gainerako herritarrek, eta zirko haundi bat sortuko dute, Goizuetan ere, goitik behera mozorrotuz. Lanak amaituta, hamaiketarako aukera izanen da, eta eguerdiko 12:00etan aterako da konpartsa.

Eguerdian, haur eta helduen bazkariak eginen dituzte, eta helduek bazkaldu bitartean haurrentzako tailerrak ere izanen dira. Arratsaldean, berri, txokolatada izanen da, eta Gorka eta Garaziren trikitixa eta pandero doinuek eta mozorroen eta dultzaina-joleen umore onak girotuko dute herria.

**Mozorroen eguna, asteartea**  
Bezperako afariarekin nahikoa ez, eta gosaritarako elkartuko dira mozorroak astearte goizean, herrian barrena dantzan atera aurretik indarrak biltzeko.

Goiz-pasa eginda, bazkaria eginen dute eguerdian, eta arratsaldean ariko dira zahagi dantzan, Motzanen hasita. Ondoren, DJa izanen da, eta afariarekin bukatuko dute festa mozorroek.

**Bukatuko, kontuak**

Festa bukatuta, kontuak ere egin behar direla-eta, festarako giroa jarriko dute berriro, gaur zortzi. **K**

### EGITARAUA

#### INAUTERIAK GOIZUETAN

GAUR

**17:00** Gaztetxoek zahagi dantza,

**18:00** Trikitilariak: Leire eta Maria.

**21:30** Mozorroen afaria.

ETZI, ASTELEHENA: ZIRKOA

**09:00** Mozorroen irteera baserrietara.

**10:00** Plaza apainketa.

**11:30** Hamaiketakoa.

**12:00** Konpartsa herrian zehar.

**13:30** Haurren bazkaria.

**14:00-16:30** Haurrentzako tailerrak.

**14:30** Helduen bazkaria.

**18:00** Txokolatada.

**18:00** Trikitilariak: Gorka eta

Garazi.

**Ilunabarrean** Mozorroen etorrera dultzaineroekin.

**22:00** Mozorroen afaria.

ETZIDAMU, ASTEARTEA

**09:00** Mozorroen gosaria.

**10:00** Mozorroak dantzan herriko kaleetan zehar.

**14:30** Mozorroen bazkaria.

**17:30** Zahagi dantza, Motzanen hasita.

**18:00-21:30** DJ Txoko.

**22:00** Mozorroen afaria.

LARUNBATA 29: KONTUEN EGUNA  
**13:00** Poteoa, 'Ilgandea' txarangaekin.

**14:30** Mozorroen bazkaria.

**17:30** 'Ilgandea' txaranga herrian zehar.



Hippy eta Rockeroez gain, beste hainbat mozorro jantzi zituzten.



# Superheroietatik Inude eta Artzainen dantza alaierraino, festa hoberik ez Inauteriak baino

Herri Eskolako ikasleek superheroiez bete zuten atzo kiroldegia, Inauterietako emanaldian. Gaur eta bihar tailerrak, musika, dantza eta 'desafiyua' ere izango dira.

## ASTIGARRAGA INAUTERIAK

Festa giroa nagusitu zen atzo herrian, eta asteburu osoan zehar luzatuko da. Herri Eskolako ikasleak izan ziren mo-zorroak jantzi eta Inauteriei hasiera ematen aurrenekoak, kiroldegian egin baitzuten festa hauetako emanaldia. Superheroiz jantzita, bakoitzak dituen botere miragarriak erakutsi zituen, bertaratutako guztiak liluratuta utziz.

Gaur ere, bereziki haurrentzako prestatutako ekitaldiak izango dira arratsaldean zehar, eta bihar arte, izango da zerekin gozatu.

## Tailerrak eta musika gaur, Kontxa Etxeberrian

Kontxa Etxeberria plaza jantziko da gaur kolorez. Bertan egingo dira bereziki umeei zuzendutako hainbat ekitaldi, eta ez Joseba Barandiaran plazan, programan zehaztu bezala. Hasteko, arratsaldeko 16:00etan haurrentzako makilatu eta orrazteko tailerrak egingo dira. Gero, 18:00etan, disko festa izango da, DJ Ki-ren eskutik. Eta arratsaldea borobiltzeko, txaranga aterako da iluntzeko 20:00etan, salto eta dantzara animatzen den guztiari musika jartzeko.

Eguraldi txarra eginez gero, ekitaldi hauek guztiak Txomifñe-nea frontoian egingo dira, baina ez dirudi horretarako beharrik izango denik.

## Photocall eta 'desafiyua', Gaztelekuan

Bestalde, Gaztelekuan ere Inauteri giroan murgilduko dira gaur. Irekita egongo da egoitza, arratsaldeko 16:30etatik 20:30etara, eta photocall-a egingo dute. Mozorro polit, alai, dibertigarri eta originalenak ondo gogoan gordetzeko argazkiak aterako dituzte.

Era berean, biharko ere hitzordu berezia prestatu dute Gaztelekuan. 'Desafiyua' antolatu dute. Arratsaldeko 17:30etan hasita, Gaztelekuko hezitzaileen eta erabiltzaileen artean egingo

dira hainbat proba, herri kiroletan. Umore ona nagusi, baina nor baino nor ariko dira, elkarren kontra.

## Inude eta Artzainak bihar, Ergobiatik Astigarragara

Inauteriei jarraipena emateko Inude eta Artzainen konpartsa aterako da kalera bihar goizean. Astigar dantza taldeko dantzariak Ergobian jarri dute hitzordua, goizeko 11:30etan. Handik abiatuko dira, Txirriskla taldeko txistulariekin batera, kalejiran, eta desfilean eta dantzan egingo dute Astigarragarainoko bidea. Dantzan, noski, dantzariak ariko dira, baina gogorarazi dute desfilean nahi duen guztiak hartu dezakeela parte. Behar den gauza bakarra da garaiko jantziak soinean azaltzea.

Konpartsa laguntzen, baita ere, danbor-joleak izango dira. Danbor eta kupelek ibilbide osoan zehar lagunduko dituzte Inude eta Artzainak. Azken entsegu orokorra atzo egin zuten, txarangarekin eta dantzariekin batean, eta biharko, gogorarazi dute soinean eraman beharreko arropak direla galtza beltzak, alkandora txuria, baserritarren zapia eta txapela.

Bestalde, eguraldi txarra eginez gero, desfilea bertan behera utzi eta dantzak Kontxa Etxeberria plazan egingo dituztela jakinarazi dute, eguerdiko 12:00etan.

## Eguerdian, plaza dantzak

Inude eta Artzainen konpartsak ibilbidea bukatuta, herritar guztiek izango dute aukera dantzarako. Izan ere, 13:30ak aldera, Joseba Barandiaran plazan egingo da plaza dantza saioa. Irekia izango da, eta animatzeko deia luzatu dute.

## Galtzaurretik, sagardotegira

Inauteriak aproposak dira edonorentzat, parrandarako aitzakia bilatzeko. Horrela, Galtzaur jubilatuen etxeko kideek sagardotegirako hitzordua egin dute, biharko. Dena den, lehendik izena eman beharra zegoen parte hartu ahal izateko.

## Kaldereroek jarritako giroari, segida

Pasa den asteburuan etorri ziren Hungariatik Kaldereroak, Inauteriak bazetozela iragartzera. Lehengo urtean hartu zuten aurreneko paper hori, ordura arte Inauteriak pasata iristen baitziren Astigarragara, herriz herri ibili ondoren.

Padera eta mailuak astinduz ibili ziren kalderero eta hartz. **K**



Superheroi batzuk Ameriketarik etorri ziren Astigarragara, atzo.



Kolore gorriaren boterea erakutsi zuten hainbat superheroik.

## EGITARUA

### ASTIGARRAGAKO INAUTERIAK GAUR

**16:00** Haurrentzako makilatu eta orrazteko tailerrak.

**16:00-20:30** Inauterietako photocall-a, Gaztelekuan.

**18:00** Disko festa, DJ Ki-rekin.

**20:00** Txaranga.

### BIHAR

**11:30** Inude eta Artzainen konpartsa. Astigar dantza taldeko dantzariak Ergobiatik abiatuko dira Txirriskla taldeko txistulariekin batera. Desfilean edonork hartu dezake parte, garaiko jantziekin apainduta.

**13:30** Plaza dantza saio irekia Joseba Barandiaran plazan, Inude eta Artzainen konpartsa bukatuta.

**17:30** Herri kiroletan 'desafiyua' Gaztelekuan, hezitzaileen eta erabiltzaile gazteen artean.

Larunbateko ekitaldiak Kontxa Etxeberria plazara aldatu dira.





Denek botereek bat egin zuten frontoian.

## Mundu guztiko superheroiak, elkartu eta biderkatuz indarrak

ASTIGARRAGA HERRI ESKOLA

Frontoian egin zuten emanaldia Herri Eskolako ikasleek. Mundu osoko superheroiek egin zuten bat bertan, eta guztien botereak elkartuta, garaiezin bihurtu ziren bertaratutakoan aurrean. Botere horien iturria zein den ere erakutsi zioten publikoari, hala ere; alaitasuna, umore ona eta ondo pasatzeko gogo! Igandera arte izango dute zerekin gozatu, Inauteri giroan.



Ergobiako plazan egin zuten aurreneko entsegua, padera kolpeka.



Festako erreginek eroso egin zuten ibilbidea, tronuan eserita.

## Mailu kolpeka, kaldereroekin Inauteriak iritsi dira

ASTIGARRAGA KALDEREROAK Inauterien iragarle izan dira aurten kaldereroak, Astigarragan ere. Pasa den asteburuan iritsi ziren Ergobiara, hilaren

hasieran Hernanitik pasata. Ergobiako plazan aurreneko entsegua egin, eta Astigarragarainora arteko bidea egin zuten, zartagi eta paderak

mailuekin jo eta jo. Astindualdi ederra eman zieten tresnei, Inauterietako aurreneko doinu eta arropa koloretsuekin herria janztearekin batera.



Astigarragarainoko bidea alaitu zuten kaldereroek mailu hotsekin.



Zartagi, padera eta latoizko tresna guztiak txikitu arte, gogotik jo zuten.

## Kaldereroekin, hartz eta erreginak

ASTIGARRAGA KALDEREROAK Su artean metal eta latoizko tresnei forma eman, eta kolpeen hots horrekin musika egin zuten kaldereroek,

konpartaren joan-etorrian. Ez ziren bakarrik ibili, inguruan izan baitzituzten, karrozako tronuetan eroso, erreginak, eta baita dantzari eta hartza ere.





Udal ordezkari guztiek eta eragile sozialek osatzen dute Etxebizitza Mahaia.

## Bizigune programa, etxebizitza hutsak alokairura bideratzeko

Asteazkenean bilera informatiboa egingo da programaren inguruan, etxe hutsen jabeek zuzenduta, 18:30etan udaletxean.

### ETXEBIZITZA BIZIGUNE PROGRAMA

Udal ordezkari guztiek eta hainbat eragile sozialek osatzen dute Etxebizitza Mahaia, eta Bizigune programa sustatzeko Alokabiderek adostutako lankidetzaren berri eman zuen atzo.

Oier Agirresarobe zinegotziak azaldu bezala, «Bizigune Eusko Jaurlaritzaren programa bat da, hutsik dauden etxeen jabeek zuzendua. Hainbat abantaila eskaintzen dizkiete». Honekin, «alokairuaren aldeko apustua» egitea da helburua, Xabier Lertxundi alkatearen esanetan.

### Programaren berri, asteazkeneko bileran

Bizigune programaren bidez etxe hutsak alokairura bideratzen dira. Horretarako, etxe huts horien jabeek «abantailak eskaintzen zaizkiete». Batetik, «etxe hutsaren errentamendua ez kezkatzeko, 6 urteko akordioa sinatzen dute etxe jabeak eta Jaurlaritzak, eta azken

hau arduratzen da kudeaketa lanez, baita mantentze lanetaz ere». Era berean, «jabeek bermatuta izango dituzte 6 urte horietan errentaren diru-sarrerak, baita etxea hutsik geratzen bada ere». Gainera, «etxea bizitzeko moduan ez dagoela-eta, obraren bat egin behar izanez gero, diruz laguntzen da jabea, eta interesik gabeko maileguak eskaintzen zaizkio». Horrez gain, «energia ziurtagiria lortzeko tramiteekin ere laguntzen du programak».

Programan parte hartzeko erabakia etxe hutsen jabeena da, eta Udalak ezin du tartean sartu, baina parte hartzerari animatu nahi ditu. «Alokairu soziala indartzeko helburuarekin, 500 bat gutun bidali dizkiegu, hutsik daudela kalkulatu dugun etxeen jabeek».

Bertan, datorren asteazkeneko bilera informatiboaren berri ematen da. Bizigune programako arduradun bat udaletxea izango da hilaren 26an, arratsaldeko 18:30etan, programaren inguruko xehetasunak eman eta bertaratutakoei sor-

tzen zaizkien zalantza guztiak argitu ahal izateko.

### Etxebizitza duina, oinarritzko eskubide

Programaren berri emateaz gain, atzokoan Etxebizitza Mahaia gogorarazi zuen «Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren etxebizitza duina izateko eskubidea oinarritzko eskubide gisa aitortzen» duela, eta «Hernanin ere hori bermatzeko zailtasnak» badirela.

Hala ere, Xabier Lertxundi alkateak gogorarazi zuen «Udalak eskumen urriak» dituela alor horretan lan egiteko, baina horretarako sortu zela Etxebizitza Mahaia aurreko legegintzaldian, «zein politika bultzatu daitezkeen adosteko».

Ildo horretan, «Udalak alokairu sozialaren aldeko apustua» egiten duela argitu zuen, bi neurriren bitartez: etxebizitza parke publikoa haundituz (67 bizitzak osatzen dute egun), eta etxe pribatuen kasuan, hutsik daudenei IBI %100eko kargua eginez, eta alokairurako diru-laguntzak emanez. Gogorarazi zuten martxoaren 9ra arte eskatu daitezkeela alokairua ordaintzeko laguntzak. Udalaren webgunean daude eskaera orriak. **K**

## DYAk lehen sorospenen ikastaroa, martxoan

Martxoaren 2tik 13ra eskainiko du DYAk, lehen sorospenen ikastaroa, arratsaldeko 18:00etatik, gaueko 21:00etara.

### HERNANI IKASTAROA

Lehen sorospenen ikastaroa eskainiko du DYAk, martxoaren 2tik 13ra bitartean, arratsaldeko 18:00etatik 21:00etara, astelehenetik ostiralera izango dira.

Inmakuladan emango dira klaseak, eta edonor bertatu daitezkeela adierazi dute antolatzaileek, ikastaro irekia baita. Ez dira aurrez ezagutzak behar, eta plaza mugatuak daude.

### Zer ezagutzak barneratuko dira ikastaroan

Martxoaren 2tik 13ra eskainiko den ikastaro honekin hain-

bat ezagutza ikasteko aukera egongo da, haien artean, lehen sorospenen eta sokorrismoa. Egunerokotasunean aurkitu daitezkeen larrialdi egoeretan nola jokatu ikasiko da, hala nola, berpizteak, zauriak, erre-durak... hauei aurre egiten eta arazoa konpontzen erakutsiko da DYAk eskainiko duen ikastarotik honetan.

Beharrezko ezagutzak barneratuko dira, eta klaseak oso erabilgarriak izango dira, bai terikoak zein atal praktikoak.

### Informazio gehiagorako, kontaktua

10 eguneko ikastaro honek, 120 euroko prezioa du. Informazio gehiagorako, telefono honetara deitu, 943 46 46 22, emailera idatzi: info@DYAgipuzkoa.com edo webgunean begiratu eta informatu: www.DYAgipuzkoa.com. **K**

## Ipuin kontaketa, datorren asteartean

### HERNANI IPUIN KONTAKETA

Datorren asteartean, ipuin kontaketa antolatu dute. Lur Korta izango da ipuin kontalaria, eta betiko bi ordutegiak egongo dira, 17:30etan izango da lehen saioa, txikienez (3-4), eta arratsaldeko 18:00etan izango da bigarren saioa, helduagoak diren txikienez (5-7) urte bitartekoentzat, hain zuzen.

## Tilos Pasan, izena eman daiteke

### HERNANI TILOS PASA

Urtero moduan, Tilos Pasa antolatu da, apiriletik ekainera bitartean, eta izena emateko azken eguna, otsailaren 25a izango da.

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† I. URTEURRENA

**Esteban Etxeberria Urreaga**


2019ko otsailaren 14an hil zen, 89 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Joan zinen baina gurekin zaitugu

Emazte, seme-alaba, biloba, anaia eta gainerako ahaideek haren arimaren alde izango den lehen urteurrenoko mezara gonbidatzen zaituztete **BIHAR, IGANDEA**, goizeko **HAMABIETAN**, **Hernaniko San Joan Bataiatzailea** parrokian. Aldez aurretik, mila esker

Hernanin, 2020ko otsailaren 22an





**FUNERARIA ORBEGOZO BEILATOKIA**

**Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora**

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20** [www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)

- \* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- \* Beilatokiak
- \* Errausketak
- \* Lekualdatzeak
- \* Eskelak, koroak...




HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA



# Ikastaro eskaintza zabala, KZguneak

Ikastaroz betea dator martxoa, izan ere KZgunean, hilabete osorako plangintza egin dute eta hainbat ikastaroetan parte hartzeko aukera dago.

HERNANI KZGUNEAK

Mota askotako ikastaroak eskainiko ditu KZguneak martxoan zehar. Esaterako, Enplegu-bilketa ikastaroa, martxoaren 2an hasi eta apirilaren 1ean amaituko da, guztira 40 ordu, eta ez dago bertaratu beharrik, urru- nekua izango baita.

Oinarritzko formakuntza ere emango da, hau aurrez aurre izanik. PC, teklatura eta sagua hasieratik nola erabili ikasteko, sei orduko ikastaroa emango da, martxoaren 2tik 4ra. Oinarritzko interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasteko, 20 ordu eskainiko dira, martxoaren 5etik, 18ra bitartean izanik. Eta mekanografia ere emango da, martxoaren 23an hasi eta 27an amaituz, guztira 10 orduko klasea.

Aisia eta entretenimenduari buruzko klaseak ere eskainiko dira, ala nola zure bidaia planifikatzea eta garraio publikoa zure Smartphonean egotea, horretarako 6 eta 4 orduko ikastaroak eskainiko dira.

Ofimatikari buruz, aurrez aurreko 20 orduko ikastaroa emango da, martxoaren 2tik hilabetea amaitu arte.

Produktibitateari dagokionez ere, ikastaro bat emango da, bi egunekoa, guztira 4 ordu. Martxoaren 30 eta 31ean. Hau aurrez aurrekoa, hala ere, urru- nekua ere eskainiko da, bertatu ezin dutenentzat. Erabili profesionalki Google aplikazioak, 40 orduko izango da, martxoaren 2tik apirilaren 1era. Eta Dropbox.

Gorde zure artxiboak hodeian, lau orduko, martxoaren 23 eta apirilaren 1ean.

Programazioa eta garapenari buruz, urruneko ikastaroa emango da, bertan Wordpress zure webgunea sortzen ikasiko da, 20 orduko da eta martxoaren 2tik 18ra bitartera iraungo du.


## KZguneako ikastaroetan izena emateko aukera dago

Sare Soziales kudeaketa eta mantenimenduaren inguruko ikastaroak ere eskainiko dira martxoan zehar, hiru hain zuzen ere. Aurrez aurreko bi ikastaro emango dira, hala nola, Facebook zure Smartphonean, martxoaren 23tik 25era, eta Instagram, partekatu zure argazki eta bideo onenak, martxoaren 26tik 27ra.

Urruneko ikastaroa, Facebook, egunerokotasuna partekatu izango da, martxoaren 9tik 18ra.

Segurtasunari buruzko ikastaroak ere eskainiko dira, urru- nekua izango da, eta 20 orduko. Zibersegurtasuna, arriskuak, zurgarritasunak eta mehatxuak. Martxoaren 16tik apirilaren 1era iraungo du. E-Administrazioa ere landuko da ikastaroetan, aurrez aurre. Online izapideak Osakidetzarekin eskainiko da, 4 orduko ikastaroa, martxoaren 30etik 31ra.

Ikastaro eskaintzaren inguruko edozein zalantza izanez gero, idatzi tutor.hernani@kzgunea.net edota deitu 943 02 36 50. Ordutegia goizeko 09:00etatik, 13:30etara eta 16:30etatik 20:00etara da. Antolatzaileek azpimarratu dute, ikastaroak doakoak direla. Horrez gain, hurbildu ezin direnentzat, ikastaro hauetarako aurre-inkripzioa egin daiteke [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) edo [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) webgunean. **K**



EROTIKAN PLAX

## Hernani, tratu onen erotismoarekin!

Intimitatea gogoz partekatzeko, elkarketa erotikotetan esploratzeko, sedukzio makina pizteko edota ibilbide luzeko harremanak elikatzen jarraitzeko modu anitzak ikustarazi dizkigute bertako hainbat herritarrek. Ekarpene esanguratsu horietako batzuk bildu ditugu hemen. Hernani, tratu onen erotismoarekin!

### Gure gizarteak zer jarri du ofertan azken aldian?

Markel Olaizola: Errexkeria. Sinplekeria. Harremanak axalekoak izatea, sakontasunik gabek, plazer zakarrak.

### Irakurgai kilikagarriren bat?

Arantza Oiarzabal: Esku bakararekin irakurtzeko kontuak.

### Zein da elikagaia eta kutixiaren arteko desberdintasun nagusia?

Iñaki Errazkin: Kutixia askoz elaboratuagoa da, ikusten ez den prestaketa handia du.

### Erotismoan, zer azpimarratuko zenuke fosforitoz?

Kaneko Esnal: Pertsonak, bakoitzak nahi duena, gogoa duena, errespetuz. Modak

jarraitu gabe. Libre izan, libre bizi.

### Maitasun kontuetan, ekin-tzailtza ala oposizioak egin?

Andoni Egia: Dudarik ez, ekintzailtza. Betirako denak irrika akabatzen du.

### S.O.S! Hernani lurralde erotikotik bihurtzeko, zer falta zaigu?

Aminata Diop: Kuadrilen sisteman aniztasun kulturala txertatzea.

### Zein enkuadre behar du postureorik gabeko maitasunak?

Jon Urbe: Enkuadre ez perfektua, foko ez zehatza, argazki mugitua, trepidatua. Teknikoki desastre bat, baina sentimendu asko transmititzen

dituena.

Xuxurlatuko zenidake maitasunean arrakasta izateko estrategia bat mesedez? Xabi Ormazabal: Norbere burua maitatzen ikastea.

### Errexa al da, betaurreko mo-reak jantzita ligatzea?

Maddalen Aduriz: Kar kar, zorritzarekin filtroa handia izaten da...

Txukuntzean etiketak erabiltzea gomendatzen duzu, harremanetan ere bai?

Maitane Ormazabal: Etiketak gauza objetibo eta funtzionalerako bakarrik, mesedez. Harremanetan buruko minak besterik ez dituzte ekartzen.

### PLAX!

Hernaniko udaleko sexu eta bikote aholkularitza da. Aurrez-aurreko doako arreta zerbitzua ematen dugu. Sandiusterrri 1 zenbakian dugu bulegoa. Hitzordua egiteko: 656 544 606 (deitu edo bidali whatsapp bat), [www.hernani.eus/sexu](http://www.hernani.eus/sexu) eta [facebook.com/plaxhernani](https://www.facebook.com/plaxhernani)



## Ahalduntze sexuala

matxoaren 2tik ekainaren 1era  
(astelehenak 17:30 - 19:30), euskaraz.

Eman izena lehenbailehen:  
[berdintasuna@hernani.eus](mailto:berdintasuna@hernani.eus) / 943 33 70 17



## Bota Bertsoa! lehiaketan parte hartzeko aukera, martxoaren 22ra arte

HERANNI ASTIGARRAGA BOTA BERTSOA

Martxoaren 22ra arte dago aukera Bota Bertsoa! bertso paperen lehiaketa txikian parte hartzeko. Beraz sagardotegietan dauden kutxetan sartu bertsoa, edo bidali dobera@dobera.eus helbidera.

## Bilerarako deia, Goiz Eguzkik

HERNANI BILERA

Datorren astearterako zita jarri dute Goiz Eguzkikoek, arratsaldeko 16:00etan. Zuzendaritza eta Junta berriaren aurkezpena egingo da bertan. Interesatuak bertaratzeko deia luzatu diete.

## Musika, literatura eta emozioek bat egingo dute, datorren ostegunean

Datorren ostegunean, Saio Linbikoak izeneko emanaldia eskainiko du Olatz Salvador abeslariak, arratsaldeko 19:30etan hasita.

HERNANI MUSIKA ETA LITERATURA

Datorren ostegunean, Olatz Salvador izango da Biteriko areto nagusian. Saio linbikoak izeneko emanaldia eskainiko du,

musika, literatura eta emozioak bateratuz. Arratsaldeko 19:30etan emango zaio hasiera emanaldiari, eta 16 urtetik gorakoen-tzako emanaldia dela adierazi dute antolatzaileek. Sarrera li-

brea da, edukiera bete arte.

Beraz, Olatz Salvador ikusteko eta entzuteko gogoz dauden horiei deia luzatu die, bertaratu eta gozatu «musika, literatu eta emozioak bateratuz». **K**



# Peru Ruizek jaso du saria, gidabaimena euskeraz aterata

Buruntzaldeko Udalek 2014an jarri zuten martxan Gidabaimena Euskaraz egitasmoa, eta ordutik, 1.027 lagunek egin dute atal teorikoa euskeraz.

**EUSKERA** GIDABAIMENA EUSKARAZ

Egitasmoa 2014an martxan jarri zenetik, 1.027 lagun izan dira, Buruntzaldea osoan, Gidabaimena Euskaraz programaren bueltan gidabaimena lortzeko azterketa teorikoa euskeraz egitea aukeratu dutenak. Horien artean, Buruntzaldeko Udalek urtero 400 euro arteko sariak zozketatzen dituzte, eta aurten, Peru Ruiz Irisarri izan da zozketan saria lortu duena. Hernaniko Otamendi autoeskolan atera du gidabaimena.

**Gidabaimenaz gain, saria**

Aintzane Barandiaran euskera zinegotziaren eskutik jaso du aste honetan Peru Ruizek saria. Pozik agertu da gaztea, dagoeneko gidabaimena lortzeko atal praktikoa ere egin baitu, eta gi-



Peru Ruiz Irisarri jaso du 400 euroko saria, Aintzane Barandiaranen eskutik.

dabaimena lortzeaz gain, atal teorikoa ordaintzeko egindako gastuaren zati bat erreperatu baitu orain, sariari esker.

Aurten, 124 herritarrek aukeratu dute azterketaren atal teorikoa euskeraz egitea, Astigarragan, Hernanin, Urnietan, Andoainan, Lasarte-Orian eta Usurbilen. Azken lau urtetan, badirudi joera goranzkoa dela,

berriro ere. Izan ere, 2014an kanpaina martxan jarri zenean, 34 lagunek hartu zuten parte, eta 2014an 140k. Ordutik, beheranzko joera hartu zuen, eta 2016tik hona goranzkoa, berriro.

Sei Udalek erronka horri eutsi eta kanpainarekin jarraitzeko asmoa azaldu dute, eta «animatzeko» deia luzatu dute Astigarragatik ere. **K**

# Asteartetik aurrera, giza katerako izen-ematea

Astigarraga DBH plataformak giza-katea egingo du martxoaren 29an, eta izen-ematea asteartean irekiko da, eskola sarreran.

**DBH ORAIN** GIZA-KATEA

Astigarragako gazteei DBH herrian egin ahal izateko aukera eskaini nahi die Astigarraga DBH mugimenduak, eta DBH Astigarraga Orain! aldarrikapena zabaltzeko, giza-katea antolatzen ari da, martxoaren 29rako.

Bertan parte hartzeko izen-emate epea asteartean irekiko da, eta hitzordu gehiago ere zehaztu diuzte.

**Asteartean eskolan; ostiralean Joseba Barandiaran plazan**

Martxoko giza-kateak Astigarragako Herri Eskola eta DBHko institutua eraikiko duten lur eremua (Mendiaundi-Anibar, kanposantu ondoan) lotzea izango du helburu. Bertan parte hartzeko, izena emateko hainbat postu jarriko dituzte. Aurrenekoa, asteartean, 16:00etatik 17:30etara eskolako sarreran, eta bigarrena,

ostiralean, 17:00etatik 19:00etara Joseba Barandiaran plazan.

Hurrengo postuak martxoan jarriko dituzte: 4an, 16:00etatik 17:30etara eskolan; 6an, 17:00etatik 19:00etara DIAko parkean; eta 12an, eskolan, 16:00etatik 17:30etara.

**Hiru puntutan, nahi denean**

Bestalde, kiroldegian, Kontxa Etxeberria plazako Ogi Berri okindegian eta Merke Azoka dendan ere izango da aukera izena emateko, nahi denean.

**Ibilbideak, hiru zati**

Martxoaren 29ko giza-katerako ibilbidea hiru zatitan banatuko dute, eta izena ematean, bakoitzari toki bat egokituko zaio.

Egunean bertan, 11:00etan Foru plazan elkartuko dira parte-hartzaileak, eta kale-jirari joango dira nor bere tokira. 12:00etan egingo da giza-katea, eta 12:30etan ekitaldia, Joseba Barandiaran plazan.

**Prentsaurrekorako deia**

Egun horretarako prestatzeko, prentsaurrekoa ere emango du plataformak martxoaren 17an, 18:30etan Foru plazan, eta parte hartzeko deia luzatu du. **K**

## Muserako trikimailuen berri, ostegunean

**GALTZAUR** ASTIGARRAGA EHUNTZEN

Hilaren 27an egingo da Astigarraga ehuntzen egitasmoa hirugarren saioa, Galtzaurren, 11:30etatik 14:30etara. Belaunaldi ezberdinen arteko harremana sendotzea helburu daukan programa honetan ari dira parte hartzen Galtzaurreko jubilatutak eta Martuteneko DBH 3 eta 4 mailetako ikasleak. Dagoeneko, birziklapenari eta Astigarragari buruzko saioak egin dituzte, eta ostegunean, musean aritzeko trikimailu guztien berri partekatuko dute.

## Etzi solasaldia, Jorge Carrerorekin

**LIBURUTEGIA** LITERATUR SOLASALDIA

Hil honetako literatur solasaldia astelehenean egingo da, 19:30etan liburutegian. Jorge Carrerok gidatuta, Pier Paolo Passolini idazlearen *Una vida violenta* liburuaz aritzeko aukera izango da.

## Perkusio saioa, Jon Patxerekin

**AEK** ZILEGI ESKOLAK

Astearterako antolatu du AEK euskaltegiak hurrengo Zilegi Eskola: Jon Patxe perkusio-jole hernaniarrarekin perkusio saioaz gozatze-ko aukera izango da, 09:30etan Nabarra Oñatz kaleko egoitzan edo 19:00etan kultur etxean. Parte hartzea doan da, baina izena eman behar da kultur etxean edo [zilegiskola@ae.eus](mailto:zilegiskola@ae.eus) helbidean.

## Hezkuntza eta historia, bi hitzalditan

**KULTURA** HITZALDIAK

Ostegunerako Alvaro Beñaran psikologoaren hitzaldia antolatu du Herri Eskolako guraso elkarteak. Ikastolako aretoan ariko da Beñaran, 18:30etan, psikomotritzitateaz. Ostiralean, bestalde, Hirituz elkarteak antolatuta, Beñi Agirrek *Historia Nabarra de Gipuzkoa* liburua aurkeztuko du, 19:30eta kultur etxean.



Marak eta Uxuek urrezko dominak lortu dituzte, eta zilarrezkoak, Jare, Naiara, Uxue eta Ainhoa.

# Sei domina piano-joleek, Andoaindik

Urrezko dominak lortu dituzte Mara Turrik eta Uxue Lajasek, eta zilarrezkoak, Jare Roca, Ainhoa Manterola, Uxue Meira eta Naiara Ortiz de Castrok.

**MUSIKA** PIANO JAIALDIA

Otsailaren 8 eta 9ko asteburuan egin zen Andoaingo piano jaialdia; aurtengoa, 15garrena izan da. Bertan, 18 urte arteko piano-joleek hartzen dute parte, eta astigartarrek ere ez dute huts egin.

Norberto Almandoz Musika Eskolako sei piano-jole izan zi-

ren: Jare Roca Fernandez, Jazzy Cat jotzen, Mara Turri Iturrioz, Jessie jotzen; Uxue Lajas Lizeaga, N° 20 A short story obrarekin; Uxue Meira Ruiz, obra berarekin; Ainhoa Manterola Lizeaga, Jessirekin, baita ere; eta Naiara Ortiz de Castro, Rock shock jotzen. Bostek B kategorian hartu zuten parte, hau da, 14 urte arte-

koenean, eta batek A kategorian, 11 urte artekoenean, alegia.

Lan polita egin zuten denek, eta dominekin etxeratu ahal izan zuten. Hain zuzen, urrezkoak lortu zituzten B kategorian Mara Turrik eta Uxuek, eta zilarrezkoak, gainerako laurak.

**Beethoven gogoan**

Aurtengo edizioan, L. van Beethoven konpositorearen jaiotzaren 250. urteurrena gogoan, konpositore alemaniarra izan dute gogoan. **K**



# Engainariak

Txatal edo puska hauetatik erdiak iruditik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiarekin. Identifika itzazu.



# Labirintoa

sekuentzia



Lagundu azerikumeari azeritegira heltzen, sekuentziari jarraituz. Gogoratu laukian banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean. Pasa dituzun laukietako hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu. Puntu grisak hitzen arteko tartea dira.

→ ↓

	U	R	T	A	N	P	E	H	E	G	L	I			
	O	S	E	R	S	Q	B	E	H	S	E	G			
T	B	O	S	E	R	I	L	A	N	E	H	S	E	G	
E	A	H	A	J	E	N	U	O	E	U	R	S	O	R	
I	T	A	S	U	Z	B	A	E	Z	I	O	U	T		
B	E	H	U	S	A	B	U	E	U	T	I	G	O	Z	
I	O	A	N	A	B	B	L	O	R	A	O	T	R	U	E
A	B	U	H	K	E	L	D	D	A	D	E	M	N		
B	E	C	U	A	H	L	O	E	I	A	G	I	D	B	
R	R	A	O	A	H	L	O	E	R	A	I	B	D	A	
R	E	I	E	C	J	L	U	U	T	O	S	U			

→ ↓

Idatzi hemen esaldia.

EGILEA: Garbine Ubeda (Aiurr)  
TOIKOMeko beste hedabideekin elkarlanean argitaratutako atala.

SOLUZIOAK: Sarru www.plazabazan.eus  
web atarian eta denbora-pasa hauen soluzioekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

Orak irakurtzeko aplikazio batekin irakurti







Etxeberriak eta Mitxelenak Ganbara bete batean eman zituzten argibideak.

## Burdinolei buruzko hitzaldian jendetza bildu zen Ganbaran

Joxe Jabier Etxeberriak eta Antxon Mari Mitxelenak eskaini zuten eta inguruan zeuden 26 burdinolei buruz aritu ziren pasaden larunbatean.

### GOIZUETA BURDINOLAK

Joxe Jabier Etxeberriak eta Antxon Mari Mitxelenak Goizueta inguruko burdinolei buruzko hitzaldia eskaini zuten pasaden larunbatean udaletxeko Ganbaran. Gaiak ikusmina eta jakinmina piztu zuen eta Ganbara lepo bete zen. Aipamen historikoak egin zituzten bi ikerlariak eta osatzeko krokisak, planoak... erabili zituzten.

Zehazki, herrian bertan eta



Goizuetarrek adi jarraitu zituzten esandakoak.

zortzi bat kilometroko inguruan dauden edo egon diren burdinolen berri eman zuten; dokumentuetan azaltzen diren

26 burdinolak, hain justu. Horiei buruzko azalpenak, datu, krokis, plano zein maketetan oinarritu zituzten. **K**

## Liburutegi ibiltaria ostiralean jarriko da

Ibiltaria da Harkaitz Delgadok martxan jarri duen zerbitzua. 14:30etan izango da Goizuetan eta 15:30etan, Aranon.

### ARANO-GOIZUETA LIBURUTEGIA

Liburutegi ibiltaria zerbitzu berria jarri du martxan Harkaitz Delgadok, Leitzako liburutegiko langileak. Eta horri esker, liburutegiko zerbitzuak jasoko dituzte Aranon eta Goizuetan ostiralean.

Hileko azkeneko ostiralean joanen da bi herrietara, eta beraz, otsailaren 28an egingen du estreinako bisita, Liburutegi ibiltariak. Eguerdiko 14:30etan izanen da Delgado Goizuetan; eta 15:30etan iritsiko da, Arano-Maisueneara. Otsailaren 7an aurkeztu zuen zerbitzua Goizuetan, Harkaitz Delgadok berak.

### Doakoa da eta eskaintza zabaldu

Doako zerbitzua izanen da, eta Nafarroako Liburutegi Sarearen katalogoko liburuak, filmak eta musika hartu ahal izanen dute maileguan, aranoar zein goizuetarrek. Oso eskaintza zabaldu da, gainera: sei astez eduki daiteke hartutako materiala, eta txanda bakoitzean, 12 elementu hartu daitezke, gehienez.

Interneten ere badauka zer-

bitzua, filmak ikusteko zein formatu digitaleko liburuak irakurtzeko. Bertan, 16.000 pelikula daukate eskura herritarrek, eta astean bi ikusi ahal izanen dituzte.

### Izenematea bi modutan egin daiteke zerbitzua erabiltzeko

Zerbitzua erabili ahal izateko, izena eman behar da aurrena. Horretarako, ostirala aprobetxatu daiteke, edota bi herrietako toki ezberdinetan dauden izenemate txartelak bete: Arano-udaletxean eta Ganbaran, eta Goizuetako udaletxean eta Amaia kafetegian. Honako datuak eman behar dira: izen-abizenak, helbidea, telefono mugikorra, posta elektronikoa, NAN zenbakia (14 urtetik gorakoek) edo arduradun baten baimena (14 urtetik beherakoek).

### WhatsApp edo Telegram bidez zein telefonoz, eskaerak

Nafarroako Liburutegi Sarearen katalogoa, ikusgai dago interneten: [www.navarra.es/opac](http://www.navarra.es/opac), ordenagailutik ikusteko; edota [www.navarra.es/Mopac](http://www.navarra.es/Mopac), mugikorretik ikusteko. Bertan ikusitako zerbitzua eskatu nahi izanez gero, liburuzainarekin jarri behar da harremanetan. 3 bide daude aukeran: WhatsApp edo Telegram bidez idatzi, 617 385 882 telefonora; edo deitu 948 51 03 79 zenbakira. Posta elektronikoa eman dute: [bibililei@navarra.es](mailto:bibililei@navarra.es). **K**

## Ximon Harategia alokairuan hartzeko deialdia zabalik, martxoaren 4ra arte

### GOIZUETA UDALA

Urte mordoska batean Ximon izan da Goizuetako harategiko gidari, baina, ebakuntza bat dela medio, laister negozioa uztekoan dela azaldu dio Udalarari. Lokala Udalararena izanik, aukera eder hau aprobetxatuz negozioarekin aurrera jarraitzeko interesa dutenek martxoaren 4ra bitarteko epea dute alokairuari buruzko informazioa eskatu eta zalantzak argitzeko. Horretarako Udal bulegora deitu (948 51 40 06) edo hurbildu beharko dute interesatuek.

## Lilatoierako entrenamenduak Leitzan

### GOIZUETA-ARANO BERDINTASUNA

Martxoaren 1ean Donostian Lilatoia egingen da eta bertan parte hartuko duten emakumeentzat entrenamenduak hasi dira antolatzen Leitzako Anikote kiroldegitik hasita. Astelehenean eta asteazkenean egin zituzten aurreneko biak, baina etzi eta asteazkenean

## Aranoko meza grabatuko du gaur ETBk

### ARANO ELIZA

Euskal Telebistak Aranoko San Martin elizan meza grabatuko du gaur, 19:00etan eta igande goizetan ikusi ahalgo dira ETBn. Historia ezagutzeaz gain herria, auzoak eta paisaiak ikusiko dira.



Ereñotzuko auzo etxean egin zen urteko batzarra.

## Egindakoak eta egitekoak, plazara

### EREÑOTZU BATZARRA

Aurreko larunbatean Auzo Batzarra egin zen Ereñotzun Auzo Udalak deituta. 2020ko urte hasiera honetan, aurreko urtean zehar egindakoak azaldu, eta aurtengorako asmoen berri eman zieten auzotarrei, batzarrean. Horiek zeuden jasota, lau puntuko gai zerrendan: 2019 urteko jardueraren eta diru kontuen laburpena; 2020 urterako proiektu asmoak, eta aurrekontuaren azalpena; Olak Auzo Elkartearen jardueraren eta aurrekontuaren azalpena; eta eskari zerrenda. Deialdiak erantzun ona izan zuen eta aretoa ia bete zen.



# Hirugarren partidua jarraian etxean jokatu du Hernanik

Bihar Landaren Santboianaren aurka ariko da, 12:00etan, eta azken aukera da salbaziorako.

## HERNANI ERRUGBIA

Hernanik Ohorezko Mailan mantendu nahi baldin badu bihar derrigorrezkoa du irabaztea Landaren Santboianaren aurka, 12:00etatik aurrera. Azkenetako aukera da, azkena ez esatearren, eta galduz gero salbazioa ia ezinezko izatetik ezinezkora pasako litzateke.

Hirugarren partidua izango da jarraian etxean jokatzeko duena eta oraingo, bitik bitan, huts egin du. Biharko ez da errazagoa izango. Azken bi aurkariak laugarren eta seigarren sailkatuak baldin baziren kataluniarrek bosgarrenak dira. Estatuko



Pello Perez aurreko asteko partiduan Independienteren kontra.

talderik zaharrena eta historikoena da Sant Boiko taldea eta aurten ere play offetarako sailkatzeko aukera asko ditu.

Hernanik aurre egin beharko

dio talde sendo honi. Azken partiduetan baino gehiago asmatu beharko dute erasoko jokoan. Puntuak lortzea asko kostatzen zaio Hernaniri. **K**

## ERRUGBIA

OHOREZKO MAILA	Hernani-Santboiana	Landaren	Bihar 12:00
23 AZPIKOAK	Hernani-Santboiana	Landaren	Bihar 10:00

## FUTBOLA

EMAK. EUSKAL LIGA	Hernani-Eibar	Zubipen	Gaur 12:00
MUT. OHOR. ERREG.	Zarautz-Hernani	Astin	Gaur 16:00
EMAK. LURR. MAILA	Arizmendi-Hernani	Mojategin	Gaur 10:30
MUT. NAZIONAL JUB.	Vasconia-Hernani	Puion	Gaur 11:00
MUT. OHOREZKO JUB.	Hernani-Vasconia	Zubipen	Gaur 16:30
MUT. OHOREZKO KAD.	Hondarribia-Hernani	Ondartzan	Gaur 12:00

## ERREMONTEA

1GO PARTIDUA	Matxin III-Arruarte/Seguroa-Zubiri	Galarretan	Gaur 16:00
2. PARTIDUA	Ezkurra II-Barreneitea IV/Urriza-Azpiroz	Galarretan	Gaur 16:00
3. PARTIDUA	Uterga-Zaldúa/Juanenea-Larrañaga	Galarretan	Gaur 16:00
4. PARTIDUA	Goikoetxea V-Aizpuru III/Aldabe-Labaka	Galarretan	Gaur 16:00

## ESKU PELOTA

MENDIALDEKO TXAP.	Aranberri-Narbarte/Aurrera	Leitzan	Gaur 16:30
MENDIALDEKO TXAP.	Salaberria-Ruiz/Aurrera	Leitzan	Gaur 16:30
MENDIALDEKO TXAP.	Seges-Larín/Aurrera	Leitzan	Gaur 16:30

MENDIALDEKO TXAP.	Sagardui-Lujanbio/Aurrera-Apeztexea	Leitzan	Gaur 16:30
TXAP. PRIBATUA	Legarreta-Elizazu/Gazteleku	Almendozen	Bihar 12:00
TXAP. PRIBATUA	Deskarga-Elizegi/Zugarralde	Iruritan	Bihar 10:00
TXAP. PRIBATUA	Iglesias-Etxarri/Iuarte-Sorondo	Donostian	Gaur 17:00
NAGUSIAK	Gazteleku/Salaberria-Ortiz de Urbina	Andoainen	Gaur 11:15
NAGUSIAK	Hernani-Lemoa (3 partida)	Zumarragan	Bihar 11:00
INFANTILAK	Artola-Txintxurreta/Goierri	Kiroldegian	Gaur 16:30
INFANTILAK	Iturbe-Elizazu/Zumaia	Kiroldegian	Gaur 11:00
INFANTILAK	Gorrotzategi-Urdangarin/Alde Zaharra	Kiroldegian	Gaur 17:00
INFANTILAK	Alberdi-Otaño/Alde Zaharra	Kiroldegian	Gaur 17:30
ALEBINAK	Gomez-Etxebarria/Kuku	Kiroldegian	Gaur 16:00
TRINKETE TXAP.	Oiarpe/Alegria-Arluziaga	Gaskan	Gaur 16:00
TRINKETE TXAP.	Insausti II-Lasa/Oiarpe	Gaskan	Gaur 17:30

## PALA

NSK. JUBENILAK	Hernani 1-Intxurre 3	Kiroldegian	Gaur 11:00
NSK. JUBENILAK	Hernani 2-Zumaia	Kiroldegian	Gaur 11:00
NSK. JUBENILAK	Hernani 3-Intxurre 3	Kiroldegian	Gaur 11:00

## BOLEIBOLA

MUT. EUSKAL LIGA	Bera Bera-Hernani	Pio Barojan	Gaur 16:30
------------------	-------------------	-------------	------------

# Kluben EHko txapelketa Nazionala, Hernanik

Zumarragan bihar, 11:00etan, Lemoa du aurkari finalaurdenetan eta hiru partidu jokatu dituzte.

## HERNANI-ASTIGARRAGA PELOTA

C.D. Hernaniko pilotari nagusiak, bihar 11:00etan Zumarragan jokatu dituzte, klub arteko Euskal Herriko Txapelketa Nazionalaren final laurdenak. Txapelketa garrantzitsua da Hernanirentzat eta pelotazaleen babesa eskatu dute.

Kanporaketa honetan Hernani Lemoaren aurka ariko da. Pasa den urtean hernaniarrak finalerdietara sailkatu ziren eta beraz aurten zuzenean sartu dira finalaurdenetara. Lemoak

Bergara, Zaramaga eta Olaburu gaudituz behar izan ditu. 4 1/2an, banaka eta binaka hiru partidu jokatzeko dira. Paul Ojuel ariko da lau terdian, Arrieta banakakoan eta binaka Urkizu eta Lizeagak osatzen dute bikotea. Bai hernaniarrak eta bai lemoarrak talde sendoa osatzen dute eta kanporaketa honetatik bakar pasako da finalerdietara.

## Lizeaga anaiak Soroa finalean, bihar Tolosan

Ekain eta Eñaut Lizeagak Tolosan jokatu dute bihar, 16:30etan, Soroa txapelketako finala. Jubenil mailakoa jokatu dute eta aurkari Hormaetxe eta Sudupe izango dituzte. Txapelketa pribaturik garrantzitsuenetakoa izaten da eta maila altuenetakoa duena. **K**

## Hernanik bi traineru gaur, Orion

### HERNANI ARRAUNA

Hernaniko arraun klubak bi traineru eramango ditu gaur Orioko traineru jaitsierara. 16:00etan hasiko da eta 16:13an, 4.000 metroko distantzian mutil jubencilak aterako dira. Nesken Maialen traineruak ibilbidea 16:46etan hasiko du. Gogoratu behar da beste taldeetan ere badabiltzala arraunlari hernaniarrak.

## Bera Bera bigarren sailkatua, aurkari

### HERNANI BOLEIBOLA

Euskal Ligako mutilen taldeak bakarrik jokatu du asteburu honetan partidua. Hori gaur izango da, 16:30etan, Donostiako Pio Baroja kiroldegian eta aurrean Bera Bera Bultz taldea egongo da. Donostiarrak bigarren sailkatuak daude eta zaila da irabaztea.

## Euskadiko txapelketa infantila, gaurtik

### HERNANI IGERIKETA

Euskadiko infantil txapelketa gaur eta bihar jokatu da Irunen Azken Portun. Bertan izango da Enaitz Goñi hiru probatan (400 eta 1500 libre eta 200 bizkar). Helburua neguko Espainiako txapelketarako gutxiengo denborak lortzea da. Aurreko astean Las Palmasen aritu zen Espainiako Autonomomi txapelketan Euskadirekin.

## Hernanik zazpigarren garaipena nahi du

### HERNANI FUTBOLA

Inauterietan murgilduta Hernanik azken jardunaldietako pozarekin jarraitu nahi du eta zazpigarren garaipena jarraian eskuratu nahi du Zarautzeko Astin gaur, 16:00etatik aurrera, bertako taldearen aurka. Bolada horri esker bigarren tokian daude sailkatuta eta hirugarren mailara igotzeko borrokan murgildu da bete-betean Eibar Urko eta Anaitasunarekin. Elkarren artean jokatu behar zuten aurreko astean, baina partidua bertan behera geratu zen.

## IRAGARKI MERKEAK

**LOGIKALINE enpresak TELEOPERADORA LANPOSTU bat bete behar du.** Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Gaztelera eta ingelesa eskatzen dira. Lanaldi osoa eta luzerako. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

**LOGIKALINE enpresak HARRERAKO LANPOSTU bat bete behar du.** Lana Hernanin egiteko da. Kontratua: 6 hilabete, hasteko. Frantsesa eta ingelesa eskatzen dira. Lana luzerako da. **Bidali c.v. rrrh@logikaline.com edo deitu 943 31 86 06.**

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

### EGURALDIA

#### GAUR



Giro eguzkitsua espero da, baina goi-lainoek zerua lausotuta utziko dute. Hego-ukituko haize ahularekin hasiko dugu eguna eta tenperatura maximoak apur bat igoko dira. **Min.5° / Max.16°**

#### BIHAR



Berdin jarraituko du. Giro argia eta lehorra nagusituko da. Hala ere, litekeena da ipar partean zerua lainotuago egotea, behe-lainoekin. **Min.4° / Max.17°**

(euskalnet)

### TELEFONO ZENBAKIAK

**TAXIAK** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALZAINGOA** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA** 943 464622 **AUTOBUSAK** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103 **ANBULATORIOA** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta)

### FARMAZIAK

**Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauetz: Urrutia** Etxebarri, 1 (Hernani) **943 557738**  
**Goizueta:** Nagusia 64 948 514353





# Kazetari bat behar du Kronikak, idazteko Urumea bailarako nondik norakoak

Amatasun baja bat dela eta, Kronikak kazetari bat behar du, eta aukera dago otsailaren 29ra arte Curriculumak bidaltzeko, [kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus) helbide elektronikora, edo bulegotik pasata. Hainbat baldintza daude lanpostu honetarako, haien artean Kazetaritza edo Komunikazioko ikasketak izatea.

## URUMEA LAN ESKAINTZA

Kronikak kazetari bat behar du, amatasun baja bat kubritzeko. Otsailaren 29ra arte jasoko dira CVak, beraz aukera dago oraindik, [kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus) helbide elektronikora bidaliz, edo bulegoan ere entregatu daiteke (Larramendi 11 behea).

Kronikan lan egiteko, hainbat baldintza bete behar dira, hala nola, euskera ondo menperatzea, hitzez zein idatziz; lantaldean aritzeko gaitasuna ere eskatzen da; inizatiba izatea eta nola ez enpatia; Kazetaritza edo Komunikazio ikasketak amaituak edukitzea kontuan hartuko da.

Kronikan, Urumea bailarako herrietako albisteak lantzen dira, hori horrela Urumea bailara ezagutzea baloratuko da. Dobera Euskara Elkarteke bazkide izatea eta tokiko hedabideak ezagutzea ere baloratuko da.

Kazetariak beti egon behar du adi inguruan zer gertatzen den jakiteko, eta aktualitatearen jarraipena egin behar da, beraz hori ere baloratuko da. Lehenago kazetari gisa lana egin bada ere baloratuko da, es-

perientzia izatea garrantzitsua baita. Maketatzeke, eta argazki eta bideoak editatzeko programak ezagutzeare ere garrantzia emango zaio. Horrez gain, Sare Sozialak menperatzea ere baliozkotzat joko da.

**Euskera ondo menperatzea eskatzen da, hitzez zein idatziz**

**Lan honetarako interesa izanez gero, bidali CVa, [kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus) helbide elektronikora edo bulegotik pasa eta bertan utzi**

**Kronikako langile berriari eskainiko zaiona**

Kazetari lanerako kontratatuari, lanerako kontratua eskainiko zaio, beti amatasun bajari



Eginkizun honi egokitutako soldata eta lan baldintzak eskainiko dira.



Amatasun baja bat kubritzeko, Kronikak kazetaria behar du eta otsailaren 29ra arte dago aukera CVak entregatzeko.

dagokiona. Eta eginkizun honi egokitutako soldata eta lan baldintzak eskainiko dira.

Behin curriculum guztiak jasota, baldintzak betetzen dituztenen artean probak egingo dira, eta ondoren, hauen artean bat aukeratu da amatasun baja kubritzeko, eta Kronikako langile izateko bitarte horretan.

Beraz, Kazetaritza edo komunikazioa ikasi baduzu, bidali CVa, aipatutako kronikako helbide elektronikora edo bulegotik pasa, eta bertan utzi. **K**

## KRONIKAK KAZETARIA BEHAR DU AMATASUN BAJA DELA ETA

Bidali zure CV-a, otsailak 29ra arte:

[kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus)  
Dobera Euskara Elkarte  
Larramendi 11 behea  
20.120 HERNANI

Kronika



### ESKATZEN DA:

/ Euskera ondo menperatzea, hitzez zein idatziz.  
/ Lantaldean aritzeko gaitasuna.  
/ Iniziatiba eta enpatia.  
/ Kazetaritza edo komunikazio ikasketak izatea.

### BALORATUKO DA:

/ Urumea bailara ezagutzea.  
/ Doberako bazkide izatea.  
/ Tokiko hedabideak ezagutzea.

/ Aktualitatearen jarraipena egitea.

/ Kazetari lanetan esperientzia.  
/ Maketatzeke, eta argazki eta bideoak editatzeko programen ezagutza.

/ Sare sozialak menperatzea.

### ESKAINIKO ZAIO:

/ Kontratu: amatasun bajari dagokiona.

/ Eginkizunari dagozkion soldata eta lan baldintzak.

Baldintzak betetzen dituztenen artean probak egin ondoren bat aukeratu da.